



Politikarien soldatak

Gure zergek askorako ematen diete

Euskal herritarrok, gure instituzioak eta Lakua zein Iruñeko gobernuak mantentzeaz gain, instituzio espainiar eta frantziarrak mantendu behar ditugu, tartean justizia eta Espainiako monarkia. Gure zergen kontura soldata oparoak lortzen dituzte politikariek.

DANIEL UDALAITZ

Politikarien soldatak

HEGO EUSKAL HERRIKO politikariak dira Espainiako Estatu osoan hobekien ordainduta daudenak. Atentzioa ematen du zenbait euskal politikariek Rodríguez Zapaterok berak baino gehiago kobratzen dutela jakiteak. Gure zergekin ordaintzen diren aurrekontuetako sosak kobratzeko garaian, Espainiako monarkia eta justiziako goi karguak dira zatirik handiena eramaten dutenak. Frantziako Estatuari dagokionez, publikoak diren datuak besterik ez ditugu lortu. Gure politikariek hilean 4.500 eurotik 8.000 euroa irabazten dute, eta horrez gain bestelako pribilegioak ere badituzte: dieta ederrak, kalte ordainak, kargua utzi ondorengo ordainsariak eta hainbat pentsio mota.

Autonomia erkidego batetik bestera politikariek gehiago edo gutxiago kobratzearen arrazoa da administrazio bakoitzak eskumena duela nahi dituen ordainsariak ezartzeko. Halaber, esanguratsua da kontuak berrikus-tea tokatzen denean alderdi politiko guztiak beti ados egoten direla. Eusko Legebiltzararen kasuan, salbuespen bakarra izan da: ezker abertzalearen jarrera, aurtengo ordainsariak %6 igotzearen aurka azaldu baita.

Zapaterok baino gehiago

Koadroetan ikus daitekeenez, Euskal Herriko zenbait politikariek hilean 7.765 kobratzen duen Zapaterok baino gehiago irabazten dute. Soldata hori, hala ere, Sarkozyrenaren azpitik dago, hark %140 igo baitzuen bere soldata eta hilean 8.000 kobratzetik 19.000 kobratzera pasatu da. Esate baterako, Ibarretxe lehendakariak, bere sailburuek, Eusko Legebiltzarreko lehendakariak, EAEko foru aldundietako



Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakariak José Luis Rodríguez Zapatero Espainiako Estatuako presidenteak baino diru gehiago irabazten du.

ahaldun nagusiek eta Bilboko alkateak urtean diru gehiago irabazten dute Espainiako presidenteak baino. Hegoaldeko hiriburuetak gainontzeko alkateak, Nafarroako hiriburukoa izan ezik, Zapateroren diru sarreretatik gertu daude.

Bestalde, bai autonomia erkidegoetako lehendakarien sailkapenean bai probintzieta-ko aldundi eta alkatetzenean, EAEkoak dira Estatuan lehenengo postuetan daudenak, eta atzetik dituztenak baino askoz gorago daude gainera. Esaterako, Ibarretxe da, Katalunia-koaren atzetik, gehien irabazten duen lehendakaria –José Montillak 164.043 irabazten

Pentsioak, ordainsariak eta kalte ordainak

Gure politikariek, hileko soldata ederrak izateaz gain, beste hainbat osagarri jasotzen dituzte: pentsioak, kargua utzi ondorengo ordainsariak eta kalte ordainak. Hona hemen datu esanguratsuenak: Espainiako Estatu parlamentariarik eta senatariek, parlamentuko jardunean 11 urte egin ondoren, gehieneko pentsioa jasotzeko eskubidea izaten dute –aurten hilean 2.384,50 eta hamalau ordainsari jasoko dituzte–. Langile arruntei, aldiz, 35 urte kotizatze eskatzen zaie eta azken hamabost urteetan gehieneko oinarria edukitzea, gehieneko pentsioa kobratu nahi badute. Parlamentuko jarduna utziz gero, lan egindako urte bakoitzeko hilabeteko ordainsaria jasotzea itundu dute parlamentari eta senatariek –gehienez 24 hilabetez jaso dezakete soldata hori–. Frantziako Estatuari dagokionez, parlamentari eta senatariek bost urtez

hilean 5.000 eurotik gorako kalte ordaina jasotzeko eskubidea dute.

Euskal sailburu eta legebiltzarkideek ere pentsio plan eta kalte ordainak jasotzeko eskubidea dute, baita jardura utzi ondoren gutxienez urtebetez edo bi urtez kalte ordaina jasotzeko ere. EAEko lehendakariak bere soldataren erdia balio duen biziarteko pentsioa jasotzeko eskubidea dauka (gaur egun urtean 50.000), eta horrez gain bulegoa, autoa eta idazkari pertsonala izatekoa. Nafarroako presidenteak, berriz, jardura utzi ondoren bi urtez bere soldata osoa kobratzeko eskubidea dauka. Aldundietako ahaldun nagusiek kargua utzi ondoren urtebetez 6.000 eurotik gorako kalte ordaina jasotzeko eskubidea daukate, eta eskubide horrek bere horretan jarraitzen du kargua utzi eta berehala beste kargu baten jabe egiten badira ere.

ditu urtean—; Bizkaikoa da aldundietako ahal-dun nagusietatik gehien kobratzen duen hirugarrena, Bartzelonakoaren -144.200 euro jasotzen ditu— eta Lleidakoaren (108.220) atzetik; alkateei dagokienez, Iñaki Azkuna da gehien kobratzen duen hirugarrena, aurretik ditu eta Bartzelonako Jordi Hereu 117.398 euroekin eta Madrilgo Alberto Ruiz Gallardón 100.743 euroekin. Gainontzeko euskal foru diputatuak ere sailkapeneko lehendabiziko postuetan daude. EAEko legebiltzarkideek %6 igo zuten beraien soldata. Hori dela-eta, Legebiltzarreko lehendakariak lehen 89.700 o irabazten bazuen, orain 95.372 irabazten du; bozeramaileek eta Mahaiko kideek lehen 75.500 jasotzen zuten urteko eta orain 80.204 , eta gainontzeko legebiltzarkideek lehen 63.971 eta orain 67.739 urteko. Zenbateko horiei, gainera, joan-etorrietarako dietak gehitu behar zaizkie. Dietak, bizitokiaren arabera, hilean 371 eta 598 artekoak dira. Horrez gain, hilean 80 jasotzen dute telefono mugikorretarako. Bestalde, dedikazio eskusiboa duten parlamentari nafarrek urtean 51.000 kobratzen dute eta Parlamentuko Mahaiko eta Batzordeko kideek 58.000 . Dedikazio eskusiborik ez dutenek, aldiz, 38.250 eta 43.500 jasotzen dituzte, hurrenez hurren.

Kongresuko presidentek, soldata onena

Espainiako Estatuan soldatarik handiena duen politikaria Kongresuko lehendakaria da, Manuel Marín, 175.000 euroekin. Hortik 155.229 dagozkio oinarritzko soldatari eta gainontzeko 20.431 euroak Madrilgo ostatu eta mantenu gastuetarako kalte ordaina dira. Diputatuen ordainsaria oinarritzko soldatak (hilean 3.020,70 euro) eta hainbat plusek osatzen dute (plusa libre egoteagatik, ordezkari-tzako plusa eta kalte ordaina), eta zenbateko bat edo beste ematen zaie daukaten karguaren edo parte hartzen duten batzordearen arabera. Horrela, Kongresuko bozeramaileek, urteko 70.000 euroko oinarritzko soldatatik abiatuz, azkenean Espainiako Estatu-ko presidentearen soldata ozta-ozta gainditzen dute, ezarrita daukaten 20.341 euroko kalte ordainari esker.

Diputatuek, gainera, hilean 1.762 euro jasotzen dute ostatu eta mantenu gastuetarako; garraio publikoan egiten duten gastua ere Kongresuak ordaintzen du, eta horretarako egunean 120 eta 150 euro arteko zenbatekoak izaten dituzte bidaia ofizialetan. Horrez gain, diputatuek pentsio plana izaten dute, eta jarduera uzten dutenean ere kalte ordaina jasotzen dute.

IKUSI
ETA
IKASI

Otsaila

23an, larunbata, 11:00etan
Deustoko Bidarte udaltzgian
YENDERREY ANTZERKIA

26an, asteartea, 18:00etan
Bagoñako udaltzgian
IKER DIAZ
Ipuin kontalaria

28an, ostaguna, 18:00etan
La Belsan
KORRI ETA XALTO
PAILAZOAK

Apirila

5ean, larunbata, 11:00etan eta 17:00etan
Bilboko Kasilla Pabilloan
PIRRIYX ETA PORROYX
"Eskerrik asko!"

Martxoa

1ean, larunbata, 11:00etan
Deustoko Bidarte udaltzgian
AYIKUS ANTZERKIA

4an, asteartea, 18:00etan
Bagoñako udaltzgian
TXATXILIPORDI ANTZERKIA

5ean, asteazkena, 18:00etan
Bilboko Zumakela eskolan
ANTTON IROSTA
Ipuin kontalaria

6an, ostaguna, 18:00etan
La Belsan
LUPE LEKUGOA
Ipuin kontalaria

8an, larunbata, 11:00etan
Deustoko Bidarte udaltzgian
MAITE FRANKO

Antolatzailea





Babesleak







SOLDATA NAGUSIAK (Urteko soldata gordinak, pertsonako)

EUSKO JAURLARITZA (2008)

Lehendakaria	100.000
Sailburuak	95.372
Sailburuordeak	80.204
Zuzendari nagusiak	67.739
Legebiltzarreko lehendakaria	95.372
Mahaiko bozeramaile eta kideak	80.204
Gainontzeko parlamentariak	67.739

NAFARROAKO GOBERNUA (2007)

Presidentea	76.600
Sailburuak	71.373
Zuzendari nagusiak	56.502
Parlamentuko presidentea	64.275
Mahaiko eta Batzordeko kideak	58.000
Gainontzeko parlamentariak	51.000

DIPUTATU NAGUSIAK (2007)

Bizkaia	99.540
Gipuzkoa	97.861
Araba	92.596

HIRIBURUETAKO ALKATEAK (2007)

Bilbo	92.873
Gasteiz	85.570
Donostia	82.091
Iruñea	61.982

ESPAINIAKO ESTATUA (2008)

Presidentea	91.982,40
Presidenteordeak	86.454,36
Ministroak	81.155,04
Estatu idazkariak	73.692
Gobernuko presidente ohiak	90.170
EGKko presidentea	94.449,12
Estatu Kontseiluko presidentea	86.454,36
Parlamentuko presidentea	175.000
Parlamentuko diputatu eta senatariak	42.280*

ESPAINIAKO BOTERE JUDIZIALA (2008)

BJKN, AG eta KA	146.000**
BJKNko kideak	124.721,70
KAKo kideak	125.507,58 eta 138.114,06
Estatuko fiskal nagusia	125.095,72
Kontuen Auzitegiko presidentea	125.086,92

FRANTZIAKO ESTATUA

Presidentea	240.000
Lehen ministroa	214.280

EUROPARLAMENTARIAK

*Plusekin 88.000 euroetaraino irits daiteke

**BJKN: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia

AG: Auzitegi Gorena

KA: Konstituzio Auzitegia

ITURRIAK: Estatuko eta autonomia erkidegoetako aurrekontuak.

EUROPAKO AGINTARIEN SOLDATAK (2007)

ESTATUA	
Alemania	
Austria	
Belgika	
Bulgaria	
Zipre	
Danimarka	
Espainia	
Estonia	
Finlandia	
Frantzia	
Grezia	
Hungaria	
Irlanda	
Italia	
Letonia	
Lituania	
Luxenburgo	
Malta	
Herbehereak	
Poloni	
Portugal	
Txekiar Errepublika	
Errumania	
Erresuma Batua	
Eslovakia	
Eslovenia	
Suedia	

Soldatarik handien koadroan ikus daitekeenez, justiziako goi karguak dira Espainia-ko Estatuan ordainsaririk oparoenak jasotzen dituztenak; ordainsari horiek Estutako fiskal nagusiaren urteko 125.097 euroen eta kupula judizialeko presidentearen 146.000 euroen artean dabilta.

Gipuzkoa, euskal erakundeen adierazle

Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasua izan liteke, gutxi gorabehera, Hego Euskal Herriko gainontzeko aldundi eta erakundeetan nahiz EAEko eta Nafarroako gainontzeko administrazio publikoetan gertatzen denaren adierazle. Gipuzkoako kasua nabarmendu dugu datu ekonomiko zehatzak jakin direlako. Baina datu horiek ez ditugu jakin arduradun politikoei aieratu dituztelako, baizik eta LAB sindikatuak ia txosten luze baten bidez zabaltu zituelako.

Txosten horren arabera, guztira 79 dira nominan dauden konfiantzazko karguak

(zuzendari nagusiak, goi mailako teknikariak, aholkulariak eta hainbat kategoriatako idazkariak). EAJk izendatu zituen kargu horietako 48 eta EAK gainontzeko 31k. Horiei ahalduen soldatak eta ahalduen eta zuzendari nagusiek lau urteko agintaldiaren ondoren jasotzen dituzten kalte ordain oparoak gehitzen badizkiegu, Aldundiko diru kutxetan urtean 5 milioi eurotik gorako gastua (5.123.293) dagoela ikus daiteke (gipuzkoarren zergen kontura, noski). Datu horiek 2007koak direnez, pentsatzekoa da 2008. urte honetarako kopuruak %5 egingo zuela gora, hori baita EUDELe kargu publikoentzat aholkatu zuen igoera. Aipatutako kopuruari Gizarte Segurantzaren, Langileen Mutualitatearen (Elkarkidetzak), Osasun Laguntzarako Zerbitzuaren (OLAZ) eta urrezko visa txartel, telefono mugikor eta abarren kostuak gehitu behar zaizkio.

LEHEN MINISTROAK	LEHENDAKARIAK
261.500	208.500
222.500	249.300
194.400	
11.100	
	125.000
114.000	
88.000	
48.000	50.268
115.000	102.000
240.000	232.000
93.000	
71.000	76.000
310.000	275.000
222.500	218.400
37.500	41.000
43.500	76.000
222.000	
40.000	45.000
123.000	
53.400	52.716
63.500	85.000
74.000	157.200
21.000	
270.000	
39.100	80.000
77.500	75.000
148.000	

ITURRIA: Droit Publique

Gipuzkoako Foru Aldundiko kargu politiko-koen soldaten eskalako gailurrean Markel Olano ahaldun nagusia dago, 2007an hileko 8.000 eurotik gorako soldata gordinarekin. Foru diputatuek, zuzendari nagusiek eta maila goreneko aholkulariek 2007an hileko 6.000 gordinetik gora irabazi zuten, eta goi mailako teknikariek hileko 4.800 euro gordinetik gora. 12. mailako idazkariek, gutxien kobratzen zutenek alegia, hileko 2.700 euro gordinetik gora jaso zuten.

Gainera, lau urteko legegintzaldia bukatu ondoren, kargu eta betebeharrak uzteagatik kalte ordain ederra ematen zaie ahaldun nagusi, ahaldun arrunt eta zuzendari nagusiei. Kalte ordain hori bateragarria da berehalaxe lanpostu berri batean lanean hastearekin. Horren adibide dugu Gonzalez Txabarri ahaldun nagusi ohiaren kasua: Pasaiaiko Portu Agintaritzako lehendakari den aldetik kobratzen duen milioikako soldataz gain, hilean

Lehendakari, aldundi eta
alkatetzen soldata
saillapenean, EAEkoak dira
Espainiako Estatuan
lehenengo postuetan
daudenak, atzetik dituztenak
baino askoz gehiago irabaziz

beste 6.524 gehiago kobratzen du ahaldun nagusi ohia izateagatik.

Monarkia garesti ateratzen zaigu

Borbondarren eskuetan dagoen Espainiako monarkiaren jarduera eta jokamolde pribatuez ezer gutxi dakigu, edo ez zaigu informazioz eman nahi. Baina azken boladan izan duten protagonismo bereziari esker euren kontabilitateari buruz zer edo zer jakitea lortu dugu. “Zer edo zer” diogu, kontabilitate horrek ez baititu datu konkretuak plazaratzen ez eta Estatuko aurrekontu orokorretako hainbat ataletan monarkiarentzat gordeta dauden milioikako partiden zehaztasunik ematen.

El País egunkari espainiarraren arabera, “Estatuko Buruzagitza edo monarkia mantentzeko kostua ilun xamarra da, monarkia ez delako aurrekontu orokorretako ‘Errege Etxea’ izeneko partidarekin bakarrik finantzatzen. Jendeak hala uste du, baina aurrekontu horietan badaude beste zenbait kapitulu monarkia finantzatzeko erabiltzen direnak. Alabaina, kapitulu horiek ez daude behar bezala banakatuak eta horrek asko zailtzen du Errege Etxearen benetako kontabilitatearen berri izatea...”.

Egunkari espainiarrak emandako datuen arabera, Espainiako monarkia mantentzeko urtean 15 milioi eurotik gora ordaintzen dugu zergadunok. Horrez gain, urteko aurrekontuetan badira beste bi partida, bata 140 milioi eurokoa eta bestea 52 milioi eurokoa, Ondare Nazionalera eta Ibilgailuen Atalera bideratuak, eta horiekin ordaintzen dira Errege Etxeak erabiltzen dituen hainbat eraikin eta autoen mantentze gastuak. Alabaina, gastu horiek aurrekontuetan ez dira behar bezala zehaztuta azaltzen. Bestalde, errege familiaren bidaia Kanpo Arazoetako Ministerioak ordaintzen ditu, eta Defentsa Ministerioak ere Errege Etxearen bestelako partida zehaztugabeak ordaintzen ditu.

Errege Etxearentzat 8,6 milioi euro daude 2008ko aurrekontu orokorretan



Cándido Conde Pumpido Espainiako fiskal nagusiaren soldata Estatuko oparoenetakoa da. Bestalde, Espainiako monarkia mantentzeko urtean 15 milioi eurotik gora ordaintzen dugu zergadunok. Horrez gain, urteko aurrekontuetan 192 milioi euroko partida monarkiaren hainbat eraikin eta auto mantentzera bideratzen da.

—aurreko urtean 8,3 milioi izan ziren—. Zenbateko horretatik gastu zehatz batzuk ordaintzen dira: Errege Etxeko goi kargudunen soldatak —ministro kategoria daukan Etxeko buruarena eta Estatuko idazkariaren kategoria duen idazkari nagusiarena—, Koordinazio Kabineteko arduradunen soldatak (25 bat langile), Erreginari Idazkaritzako soldatak —10-12 pertsona dira, eta aldi berean infanten laguntzaile ere badira—, Printzearen Idazkaritzako soldatak (15 pertsona inguru), Komunikabideen Buruzagitzako, Protokolo Saileko, Segurtasuneko... gastuak. Erregearen agindupeko militarren buruaren gastuak (teniente jenerala eta

Lau urteko legeegintzaldia
bukatu ondoren,
kargu eta betebeharrak
uzteagatik kalte ordain
ederra ematen zaie ahaldun
nagusi, ahaldun arrunt
eta zuzendari nagusiei.
Kalte ordain hori
bateragarria da lanpostu
berri batean hastearekin

laguntzaileak) Defentsa Ministerioak ordaintzen ditu.

Aipatutako 8,6 milioi euroei gutxienez beste 5,9 milioi gehitu behar zaizkie. Azken zenbateko hori Administrazio Publikoen Ministerioari dagokion atalaren barruan sartuta dago, “Estatuko Buruzagitzaren administrazio kudeaketarako laguntza” izenpean. Dirutza hori, lehen adierazitako zenbatekoarekin ordaindu ezin diren Errege Etxeko langileetako askoren (gaur egun 137) soldatak ordaintzen dira.

Zarzuela jauregiko mantentze lan, zerbitzu eta ondasunak, Asturiasko printze-printzesen etxea, eta errege familiak oporretara joateko erabiltzen duen Mallorcako Palmako Almudaina jauregia eta bertako lorategiak ere ez dira Errege Etxeko partidarekin finantzatzen. Eraikin horiek guztiak eta baita Errege Jauregia, El Escorial, La Granja, El Pardo eta Río Frío jauregiaren jabetza Ondare Nazionalarena da eta sorrarazten dituzten gastuei aurre egiteko aurrekontu berezia dute (140 milioi eurokoa). Enpresaburuen talde batek erregeari oparitutako itsasontzia ere Ondare Nazionalaren eskutara pasatu zen eta orduz geroztik Ondare Nazionala arduratzen da ontzia mantentzeaz, nahiz eta erabiltzaile bakarra erregea izan.

Bestalde, egunkari madrildarrak dio Errege Etxeak 1978an itundu zuela errege familiako kide guztiek Ogasunean aitortu beharreko PFEZren zenbatekoak “gainontzeko herritarren baliokideak” izatea. Errege-erreginak eta haien seme-alabek ondarearen gaineko aitortpena egiten dute eta norbere ondasunei dagozkien zergak ordaintzen dituzte.

Finean, ez da makala herritarren poltsikoetatik politikari eta monarkek jasotzen duten dirua. Batez ere 4.000 eta 8.000 euro arteko soldata horiek Espainiako batez besteko soldatarekin alderatzen baditugu: 1.333 euro hilean. ■